

2014KO ABENDUAREN 18AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2014ko abenduaren 18an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- GORKA RENTERIA GARAI
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO

ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA ez da bertaratu

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2014KO ZEMENDIAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2014ko zemendiaren 27ko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

355/2014.- *Garajeko teilatua konpontzeko udal lizentzia.*

356/2014.- *Pasabide plakak itzultzea.*

357/2014.- *Suete eta bainu-gela bat barrizteko udal lizentzia.*

358/2014.- *Datu pertsonalei buruzko artxiboak erregularizatzea.*

359/2014.- *Lapikoen txapelketa egiteko udal baimena.*

360/2014.- *Udalaren Gobernu Irekiaren Plataforma deritxon hitzarmen zehatza onestea.*

361/2014.- *Kreditu gaikuntza bat onestea.*

362/2014.- *Bizitza bateko etxea egiteko lizentzia.*

363/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

364/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

365/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

366/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

367/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

368/014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

369/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

370/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

371/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

372/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

373/2014.- *Funtzionario baten borondatezko eszedentzia.*

374/2014.- *Gorpuzkinak atarateko luzapena.*

375/2014.- *Bakioko Udalaren eta Euskaltel S.A, enpresearen arteko kontratua luzatzea.*

376/2014.- *Bizitza bateko etxea egiteko lizentzia.*

377/2014.- *Motor show egiteko udal baimena.*

378/2014.- Nitxo baten kontsezioa.

3.- 2014KO UDAL AURREKONTUAREN 12. ALDARAZPEN ESPEDIENTEA ONARTU, HALA BAJAGOKO.

Aitor Apraiz alkateak, aldarazpenaren nondik norakoaren azalpena emon dau, bertan ageri dira aurrekontu partideak atalez atal azalduz.

Felix Jauregizar zinegotziaren galderei erantzunez, alkateak argibide honeek emon dauz:

Aldarazpena, besteak beste, herri bidea konpontzeko finantzazinoa ahalbideratzeko egiten dan arren, konponketa obrea egingo dan lekuak ez dauka zerikusirik, Itsasertzeko Sailaren finantzazino pean, Zarrakoa bidean egingo diran obrekaz.

Hornitzaileen maileguaren zorpetze interesak dirala-eta 10.000 eurori baja emon arren, horreek hornitzaileen maileguaren amortizazinarako erabiltea ez da derrigorrezkoa, baina gastuen arau maila ia gainditzeko zorian dagoan ezkerro, interes horreek beste zeregin batzuk ordaintzeko ezin dira erabili gastuen arau maila gainditu gura ez bada behintzat.

Ametz Jauregizar zinegotziak dino:

Badagoz aurrekontuaren betearazpena behar dan moduan burutu arren, gastuen arau maila gainditu daben udalek, baina, aldi berean, gainditze hori ondo justifikatuta itxita.

Izan be, urte baten udala gastuen arau mailaren azpitik badabil, gastu gitxiago eginaz, egindako gastuaren zenbatekoa hurrengo ekonomi ekitaldirako gastuen arau maila izango da, eta horrek udalaren askatasun ekonomikoari kalte egin ahal deutso, maila horrek adierazotako zenbatekoa baino gastu handiagorik ezingo leukelako egin. Ondorioz, sortzen dan egorea hauxe da, urtero-urtero udalak izan daikezan premiazko zeregin edo betebeharrak zehatz batzuk ezin bete izatea, gastuen arau maila gainditu gura ez izatearren, zeregin edo betebeharrak gauzatzeko egin beharreko gastuek maila hori gaindituko leukien bildur.

Azken batean, gastuen arau maila urtez urte eta zehatz-mehatz errespetatzeak, gastu gitxiago eginaz, ekitaldietako aurrekontuak, hurrenez hurren, murriztagoak izatea dakar, horrenbestez, udal zerbitzuei kalte eginaz. Hau da, adierazo gure doguna da, udalak herriko zerbitzu arloko bere betebeharrak gauzatzeko egin beharreko gastuak gastuen arau maila gainditzea ekarriko balebe, gure ustez, gainditze hori justifikatuta legokela.

Alkateak dinotso azken hori dala-eta Bakioko Udalak doikuntza plana onartuta daukan ezkerro, hor azaltzen dana bete beharra dagoala, eta euron artean gastuen arau maila. Eta

zerbitzu batzuei buruzko gastuak murrizten diran modura, beste zerbitzu zehatz batzuetan gastu gehiago egiten dala horreetarako finantzabideak aurkituz, hortaz, udal aurrekontuaren zenbatekoari eragin barik, ezta gastuen arau mailari be.

Ostean, zinegotziek aldarazpen horren ganeko dokumentazioaren barri daukiela kontuan hartuta eta Informazio Batzordean espedientea aztertu dan ezker be, zinegotziek botoa emoteari ekin deustie, era honetara:

EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

2014ko udal aurrekontuari jagokon 12. aldarazpen espedientea onartzea, kreditu transferentzia modalidadean.

Kredituak transferitzen diren gastu partidak (bajak)

Prog. funtzionala	Partida	Izendapena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Emaitzazko kreditua
121	1310001	Lan legepeko eta zerbitzuetako langileen gastuak	41.361,66 €	7.000,00 €	34.361,66 €
121	1310004	Aldi baterako lan ordainsari osagarria	75.026,14 €	17.300,00 €	57.726,14 €
441	2120101	Berogailuen konponketa eta zainketa	13.000,00 €	5.000,00 €	8.000,00 €
121	2220101	Telefonoak	26.175,00 €	4.500,00 €	21.675,00 €
442	2270111	Altzariak eta tresnak	3.600,00 €	2.700,00 €	900,00 €
432	2270701	Arkitektoa	41.500,00 €	3.000,00 €	38.500,00 €
222	2279903	TAO	183.052,52 €	4.000,00 €	179.052,52 €
121	3220112	Hornitzaileen maileguaren zorpetze interesak	270.000,00 €	10.000,00 €	260.000,00 €
223	4810001	Trans arruntak, Gurutz Gorria	5.000,00 €	2.000,00 €	3.000,00 €
			658.715,32 €	55.500,00 €	603.190,32 €

Handitzen diren kredituen gastu partidak (altak)

Prog. funtzionala	Partida	Izendapena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Emaitzazko kreditua
511	2100098	Bide publikoak konpontzea eta zaintzea	10.500,00 €	24.000,00 €	34.500,00 €
451	4810120	Transferentzi arruntak, kultur taldeak	20.000,00 €	2.000,00 €	22.000,00 €
434	6230001	Makineria	16.088,25 €	19.500,00 €	35.588,25 €

121	9330005	Hornitzaileen maileguaren amortizazioa	60.988,32 €	10.000,00 €	70.988,32 €
			107.576,57 €	55.500,00 €	163.076,57 €

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

4.- EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP) ONESTEA, HALA BAJAGOKO.

Zinegotzi guztiek plan horren maminaren jakitun diran ezkerero, gai honeri hasikera emoteko Aitor Apraiz alkateak planaren helburuaren ganeko azalpen laburra emon dau.

Ostean, Felix Jauregizar zinegotziak, ondorengo hau adierazo dau: *plana ondo landuta dago, baina ez da nahikoa, ze proiektu horretan jasotakoa beteteko ekimenak egin behar dira, eta hor udal gobernuaren aldetik hutsunea dago. Igaz be udalbatzak euskarari buruzko programea onartu eban arren, ez dogu ikusi bertan jasotako egintzarik gauzatu danik, esaterako, programan azaltzen zan gauzatutako egintzen ebaluaketak egingo zirala, baina ez dakigu egin diranik, eta, orain be berdin pasauko dan susmoa daukagu, plana onartu bai baina edukia garatu ez, hau da, ez dogu ikusten zehaztuta horren garapena zelan egingo dan, esaterako, jarraipen-batzorderen bitartez edo.*

Azkenik, zinegotziek botoa emoteari ekin deusien ezkerero, Udalaren Osoko Bilkurak, **euskara sustatzeko ekintza plana (ESEP) onestea** erabagi dau, bertaratutako zinegotzien aho batez (EAJ eta BILDU taldeetakoak).

5.- AURREKO UDALBATZAK ERABAGITAKOARI JARRAITUZ, KULTUR ETA KIROL TALDEEN ARTEAN 2.000 EUROKO KOPURUA HAINBANATZEA ERABAGI.

Kontuan izanik 2014-11-27ko udalbatzak, 2014ko udal aurrekontuaren gastuen orriko 451/4810120 partidaren pentzura, kirol eta kultur alkarteei dirulaguntzak emotea erabagi ebala, guztira 20.000 euroko dirulaguntza hainbanatuz.

Kontuan izanik udalbatza horretan 2014ko udal aurrekontuaren aldarazpena izapidetzea erabagi zala be, beti be 451/4810120 aurrekontu partideari 2.000,00 euro gehitzeko, alkarteen artean hainbanatzeko.

Aurrekontuaren aldarazpen hori izapidetu eta onartu dan ezkerero, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (EAJ eta BILDU taldeetakoak) erabagi hau hartu dau:

2014ko udal aurrekontuaren gastuen orriko 451/4810120 partidaren pentzura, ondorengo alkarteen artean 2.000 euroko dirulaguntza era honetara hainbanatzea.

- 1.- Alaitasuna: 61,90 euro.**
- 2.- Atxurre FST: 61,90 euro.**
- 3.- Bakioko Abesbatza: 175,5 0 euro.**
- 4.- Bakio Kirol Taldea: 855 euro.**
- 5.- Bakio Surf Taldea: 61,90 euro.**
- 6.- Bizilore: 61,90 euro.**
- 7.- Gaueka Herri Kirol Taldea: 196,50 euro.**
- 8.- Itxas-Alde: 225 euro.**
- 9.- Marta Txori: 61,90 euro.**
- 10.- Urkitza Ikastetxeko Guraso Alkartea: 238,50 euro.**

6.- GIZARTE-ZERBITZUEN MUNGIALDE PARTZUERGOKO ESTATUETAKO ALDARAZPENA ONARTU, HALA BAJAGOKO.

Partzuergoa Mankomunidade bihurtzeko prozedura izapidetzen dagoan ezker, gai hori dala eta, esan beharra dago zinegotzi guztiek agiri honeen barri daukiela: Mungialde Gizarte Zerbitzuetako Partzuergoaren estatutuak aldarazoteko proiektuari buruz Bizkaiko Foru Aldundiko Teknikariak egindako 2014.12.05eko txosten juridikoa eta aldarazo beharreko estatutuen artikulak.

EAJ/PNVko taldea osotzen daberen sei zinegotzien aldeko botoagaz (Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz), korporazinoa legez osotzen daberen zinegotzien gehiengo osoa izanik, Bakioko Udaltzako, erabagi hau hartu dau:

Mungialde Gizarte Zerbitzuetako Partzuergoaren estatutuen aldarazpena onartzea, horren edukia hauxe izanik:

Lehen. Estatuetako 1. artikulak, azkenik, zera dio:

“Apirilaren 2ko 7/85 Legearen —Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen— 44. artikuluan xedatutakoaren babesean, Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea sortu dute Mungiako, Bakioko, Laukizko, Gamiz-Fikako, Meñakako eta Arrietako

udalek, Estatutu horietako 7. artikuluan zehaztutako helburuetarako. Nolanahi ere, Mungialdeko eskualdeko gainerako udalerriek, nahi izanez gero, sartu ahal izango dute Gizarte Zerbitzuen Mungialde Partzuergoan, Estatutu horietako 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren arabera.”

Bigarrena. Estatutu etako 3. artikulua, azkenik, zera dio:

“Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatea” izango du izena.”

Hirugarrena. Estatutu etako 5. artikuluko 2. puntuak, azkenik, zera dio:

“Horren osagarri gisa, Toki Araubidea eta martxoaren 30eko 3/95 Foru Araua — Bizkaiko udalaz gairdiko erakundeak arautzen dituena— aplikatuko dira.”

Laugarrena. Estatutu etako 6. artikulua, azkenik, zera dio:

“Helburuak hobeto betetzeko, Mankomunitateak harremanak egin ahal izango ditu edonoiz, bai Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Departamentuarekin, bai eta beste edozein erakunde publiko edo pribaturekin ere.”

Bosgarrena. Estatutu etako 11. artikuluko 1. puntuak, azkenik, zera dio:

1. *“Batzar Nagusia hamar kidek osatuko dute, zehatz-mehatz, hauek:*

- Bakioko Udalaren ordezkari batek, Laukizko Udalaren ordezkari batek, Gamiz-Fikako Udalaren ordezkari batek, Meñakako Udalaren ordezkari batek, Arrietako Udalaren ordezkari batek eta Mungiako Udalaren bost ordezkariak.”*

Seigarrena. Estatutu etako 14. artikulua, azkenik, zera dio:

“Batzorde Betearazlea Partzuergoko lehendakariak eta zazpi kidek osatuko dute: Mungiako Udalaren bi ordezkariak, zeinetako bakoitzak hiru boto izango baititu, eta gainerako udaletako ordezkari banak, zeinek boto bana izango baitute.”

Zazpigarrena. Estatutu etako 38. artikuluko 1. puntuak, azkenik, zera dio:

“Idazkari-ikuskatzailearen figura sortu da, eta lanpostu horretarako egokia den eta Mankomunitateak kontratatuko duen pertsonak beteko du. Lanpostua sortzen ez den bitartean edo aplikatu beharreko lege-araudia —aurreko artikuluan adierazitakoa— betez lanpostua esleitzen ez den bitartean, Bakio, Laukiz, Gamiz-Fika, Meñaka, Arrieta eta Mungiako udaletan kargu hori betetzen duten

pertsonek jardungo dute lanpostuan, ordena horretan, edo haren legezko ordezkariak edo eginkizun horretarako eskuordetzen duenak.”

Zortzigarrena. *Estatutuetao 42. artikulua, azkenik, zera dio:*

“Mankomunitateak iturri hauetatik bilduko ditu baliabide ekonomikoak:

- a) Mankomunitateko udalerrien ekarpen proportzionalak.*
- b) Beren ondarearen salmentak eta produktuak.*
- c) Europako Batasunetik, Estatutik, Autonomia Erkidego eta Lurralde Historikotik edo bestelako erakunde publiko eta pribatuetatik jaso litezkeen diru-laguntzak, laguntzak, legatuak eta dohaintzak.*
- d) Zerbitzu eta ustiapenen etekinak.*
- e) Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuen edo lanen onuradun edo erabiltzaileek ordaindu beharreko tasak, kontribuzio bereziak eta prezio publikoak.*
- f) Organo zuzendariak adosten dituen kreditu-eragiketen eta antzekoen etekina.*
- g) Mankomunitatearen eskumen diren isun eta zigorren etekina.*
- h) Haren alde ezartzen diren itunpeko tributuen partizipazioak.*
- i) Zuzenbide Publikoko bestelako prestazioak edo legez eskura daitezkeen bestelako diru-sarrerak.”*

Bederatzigarrena. *Estatutuetao 49. artikulua, azkenik, zera dio:*

1. “Mankomunitatea handiagotu dadin, beharrezkoa izango da:

- a) Interesa duen korporazioak eskatzea, eta alde aurretik haren osoko bilkuran gehiengo osoz onartua izatea.*
- b) Mankomunitatearen Batzar Nagusiak gehiengo osoz onartzea. Mankomunitatean sartzeko hitzarmenean jaso behar dira bertako kide izateko ezarritako baldintza orokor eta partikularrak, besteak beste,*

Mankomunitatean sartu izanak sortutako gastuen ordainketa edo Mankomunitatean sartzeko kuotaren zehaztapena.”

Hamargarrena. 50. bis artikulua gehitu da, Estatutuen arabera eta hitzez hitz:

“Mankomunitateko edozein udalerrik bertatik atera gura badu bere borondatez, martxoaren 30eko 3/95 Foru Arauaren —Bizkaiko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen— 22. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa bete behar da.”

Hamaikagarrena. Estatutueta 55. artikulua 51.a bihurtu da, eta deuseztatze-kausa hau gehitu zaio:

d) *“Mankomunitatearen Batzar Nagusiak eta Mankomunitateko udal gehienek hala adosten badute, hura sortzeko beharrezko quorumarekin.”*

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA:

Estatutu hauetako artikuluetan "Partzuergo"ari egiten zaizkion aipamen guztiak "Mankomunitate" berbarekin edo berba horretatik eratorritakoekin ordeztuko dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA:

19. eta 20. artikuluetan aipatzen diren zenbatekoei dagokienez, kantitate hauekin ordeztuko dira:

– 25 milioi pezetaren ordeztu, 150.000 euro.

5 milioi pezetaren ordeztu, 30.000 euro.”

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziak, barriz, abstenidu egin dira; zergaitik eta, Bakioko Udaltzako, 2012ko urtarrilaren 26an egindako bileran, Bakioko Udalak Partzuergoan ordezkari bi izateko, aho batez, hartu eban erabagia (Partzuergoari jakinarazo jakon) aintzat hartu ez dalako, erabagi horretan azaltzen zan modura, ordezkari bi izateko arrazoiak egon arren.

7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.- Inork ez dau egin eskaerarik eta galderarik.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoenez, alkate jaunak batzar hau 19:40ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria